

Mahmud Darwish poeta palestinarri omenaldia Bilbon

Bilboko San Franzisko auzoko liburutegiak berriki zendutako poeta oroituko du. Arabierazko idazlerik garrantzitsuenetakoa da Darwish.

Bilboko San Frantzisko auzoko Udal Liburutegiak Mahmud Darwish poeta palestinar zendu berriaren omenezko ekitaldia egingo du gaur arratsaldean. Bertan, Deustuko Unibertsitatean irakasle laguntzaile dabilen Hithem Abdulhaleem psikologo palestinarra eta At El Bouhali Bouchra errezitzaile marokotarra parte hartuko dute, Darwishen "Arrosa gutxiago" liburuko poema batzuk gaztelaniaz eta arabieraz irakurtzeko asmoz. Errezitaldia 19:00etan hasiko da, eta sarrera doakoa da, antolatzaileek jakinarazi dutenez.

Mahmud Darwish (Galilea, 1941 - Houston, 2008) arabierazko idazlerik garrantzitsuenetakotzat jotzen da, baita Palestinako poeta nazionaltzat ere bere poesiaren konpromisoa gogoan hartuta. Bere lana Palestinako kontzientzia poetikotzat jotzen da. Darwish bertan jaio zen, eta Israelgo armadak bertatik kanporatu zuen poetaren familia. Bere poemarik ezagunena, "Nortasuna" izenburukoa, arabiar munduaren ereserki bilakatu zena, agintari israeldarrek palestinarrei sinarazten zieten inprimaki batean oinarrituta dago. Poetaren izena historiarekin lotuta azalduko da beti, Palestinaren Independentzia Deklarazioa idatzi baitzuen 1988an. Bere poemak Ekialde Hurbileko egoera politikoaren salaketa argia dira (Palestina galdutako paradisia balitz bezala ageri da), eta arabiar tradizio poetikoa eraberritzen lagundu dute, errealismo metafikoa deritzonera hurbilduz. Bere ibilbide luzean, nazioarteko golardo ugari jaso zuen, hala nola, Frantziako Arte eta Letretako Zaldunaren domina edo Holandako Klaus Printzea Saria. 2001ean berriz ere zabaldu zenetik, San Frantziskoko Udal Liburutegiak (Bilboko Udal Liburutegi Sarean sartuta dago) Bilboko auzo honetako aniztasun etniko eta kulturala islatzen duen materiala biltzera bideratu ditu bere funtsetako batzuk. Horri esker, bertako apalategietan hizkuntza desberdinetan idatzitako liburuak topa daitezke, baita hizkuntzak ikasteko metodoak eta immigrazioari buruzko bibliografia zabala ere.